

Euskararen Historia Soziala (EHS)
Argibide bibliografikoak
Joseba Intxausti

Argitalpen honekin* hasten du Euskaltzaindiak liburu-sorta berri bat: *Etxeberri Bilduma*. Bilduma berri hau Euskararen Historia Sozialari eskainia izango da (EHS), eta agiri historiko eta ikerlanak jasoko ditu: alde batetik, idazlan berriak eta, bestetik, lehendik arditara emanda daudenak, baina sakabanaturik dabilzanak. Eta, noski, Euskaltzaindiak berak susta ditzakeen ikerlan berriak.

Horrela, gure artean kaleratu izan diren idazlan historiko-soziolinguistikoak aurkeztuko ditu, sakabanatuak, dagoeneko eskueran ez daudenak nahiz edozein arrazoirengatik premiazkoak ditugunak. Era berean, erbestetik edo beste hizkuntzetatik lagungarri izan ditzakegunak ere aintzakotzat hartuko ditu.

Hiru atal nagusi ditu liburuak: 1) Hitzaurre teknikoa. 2) Erreferentzia bibliografikoen zerrenda. 3) Idazlanetako gaien aurkibidea.

Argitalpenaren helburu nagusia Euskararen Historia Soziala (EHS) ezagutu ahal izateko eskura dauden argitalpenak aurkeztea izan da, liburuak eta artikulak bilduz. Iker-arlo horretako lehen emanaldia da hau, bi adieratan: lehenengo aldiz eskaintzen da honelako bibliografia berezitua, eta ondoren etorri beharko duten emanaldi osagarrien lehen aurrerapena da oraingo hau. Hortaz, lehenengo honek ez du osotasun asmorik, eta bere horretan zerbitzu mugatua da: 4.440 erreferentzia jasotzen ditu, hizkuntzaren historia sozial orokorrera hurbiltzeko bibliografia hautatua eskaintzen duela: 1.657 liburu; 1.955 artikulua eta 828 hitzaldi edo liburu-kapitulu.

Idazlan-zerrenda hori erabilgarria izan dadin, erreferentzien gai-aurkibide zabala gehitu zaio berorri, historia kronologikoa eta kontzeptuala eskuratu ahal izateko, Antzinatetik hasi eta gaurdaino, gertakari sozial, instituzional eta kulturalak zerrenda alfabetiko batean eskueran jarritz.

Herriak, Herrialdeak, Erakundeak, mugimendu sozialak, pentsamendu soziolinguistikoa, historiako une beroak, hizkuntzen aldeko eta aurkako ekimenak, ahalegin sozial eta politikoak, hizkuntza idatziaren historia eta abar: hainbat gai interesgarri ezagutzeko baliabide bibliografikoak aurkituko ditu irakurleak argitalpen honetan. Gaien aurkibidean ikusi ahal izango ditu zerrendak eskaintzen dituen aberastasunak, eta hor jabetuko da argitalpenak oraingoz dituen mugez ere.

Oro har, euskararen iragan soziala ezagutu eta arakatu nahi dutenentzat pentsatuta dago liburua, eta berezikiago ikertzaile eta ikertzaile-gaientzat egin da bilketa hau. Ikertzaile gazteak izan ditugu batik bat gogoan.

Ezagutu ohi diren “Bibliografien” ondoan, mota berri bateko ez-ohiko argibideak ematen dizkio liburu honek irakurle interesatuari: hain zuzen, erreferentzia bibliografikoaren ondoan (egilea, titulua, argitaletxea, urtea, etab.), orain arte emangarriak ez ziren xehetasunak bildu baititugu, liburu, aldizkari eta testuen eskuragarritasuna begibistan uzten dela. Internet bidezko lana izan da hori:

- a) Aipatutako liburuak eta aldizkariak zein liburutegitan dauden esaten dugu (28.000 liburutegi-aipamen).
- b) Liburu-aldizkarietako testuak Internet-en bidez nondik eskura daitezkeen ere bai (fitxetako heren batek edo du URL erreferentziarik).

* INTXAUSTI, J. (2011): *Euskararen Historia Soziala (EHS). Argibide bibliografikoak*. Bilbo: Euskaltzaindia. (Euskaltzaindiko teknikariak: I. Etxebeste eta K. Segurola).

Euskaltzaindiak sustatu nahi duen Euskararen Historia Sozialak (EHS) oinarritzko tresnetako bat izango du liburu honetan, laster etorriko den metodologiazko sarrerarekin batera.

Lehen emanaldiaren hori azpimarratu beharra dago: liburua ez da bukatu eta itxia, hurrengo lanen hastapena baizik. Eta hori adiera batean baino gehiagotan: ez ditu biltzen alor honetan (EHS) lehendik dauden idazlan eskuragarri guztiak, berriak ere sortuz doaz eta bildu egin beharko dira, bilduta izango dugun lehengoa eta berria Internet-erako bidean jarri nahi dugu, eta ikertzaileentzako metodologiaren arabera ere aurkeztu Internet berean.

Esan beharrik ez dago hau guztia plangintza zabal baten barruan eraman nahi dela, ikerkuntzan ez ezik Liburutegietarako ere (azken buruan, dagoeneko badakigu, katalogo honen bidez, EHSaz Eskal Herriko Bibliotekek zer daukaten, eta datu emankorra izango da hori, haietako bakoitzarena osatuz joateko ere).

Joseba Intxausti da argitalpen honen azken autore erantzulea. Lana halako xehetasunekin burututa ageri bada, Euskaltzaindiko teknikariak diren **Izaskun Etxebeste** eta **Koro Seguro**-ri zor zaie.

Bilbo, 2011-02-25